

Martin Ugalde eta Migel A. Unanua 1989.eko Literatur Sarien irabazle

[Egile ezezaguna]

Eguna, 1989-12-21: 8.

Martin Ugalde, Elaberria Sailean, eta Migel Angel Unanua Garmendia, Poesian, dira 1989.eko Euskal Herriko Euskarazko Literatur Sarien bi irabazleak. Haez aparte, Laura Mintegik akzesita lortu zuen Elaberria sailean, Saiakera atalean bi akzesit eman zirelarik, bata J.M. Bujanda Arizmendiri eta bestea Mikel Xabier Aizpurua Muruari. Sarituen izenak atzo jakinarazi ziren, La Bilbaina bilbotar egoitzan egindako biltzarraren ondoren.

(...)

Ugaldek elaberriaren aldeko apostua egin

Martin Ugalde, Elaberria ataleko saridunak exilioaren inguruko ikuspegi desberdin bat erakutsi nahi izan du "Itzulera baten istorioa" lanarekin. "Exilioa amets bat da, exiliaturik zaudenean ametsetan gertatzen den bezala, ez dakizu zehazki nora zoazen, ez dakizu etorkizunak zer ekarriko dizun. Ametsa ona ala txarra izan daiteke, eta nik, elaberri honekin, itzulera, exilioaren ametsa, erakutsi nahi izan dut, familia baten itzulera berezia, alegia".

Venezuelan kokaturiko elaberri honen ezaugarri nagusia, Martin Ugaldere eritiziz, "exiliotik bueltatzeko abenturaz beteriko bidaia da. Normalki, gurasoek itzulerarekin amesten dute, baina bertan jaio eta hezitako semeen egoera ezberdina izaten da, hauek han gelditzea nahiago izaten bait dute. Itzulera ez da amestutakoa izaten, familiaren zatiketa ekartzen bait du. Bestalde, bueltatzerakoan herrian gauzak aldatu egin direla ohartzen dira. Iana, etxebizitza eta abar aurkitzea zaila izaten da. Egoera benetan gogorra, batez ere seme-alabentzat".

Martin Ugaldek azpimarratu duenez, "elaberri honen esanahirik haundiena gerokoa da, baina geroko hori zertan datzan ez dut aurreratuko, hori irakurtzerakoan aurkitu behar bait da".

Sari honek asko poztu du Ugalde, berarentzat lan honek esfortzu bikoitza suposatu bait du. Venezuelan exiliaturik zegoelarik, ipuina idazten hasi zen, "han ipuina kantu literario nazionala delako". Berak gehien jorratutako arloa ipuingintza izan denez, gogorra izan zaio elaberria lantzea. "Ipuinak errealitatearen zati txiki bat neurtzen du, baina nobelak mundu osoa irakurtzeko neurria ematen du, horrek suposatzen duen guztiarekin, bai denbora, bai tokiaren inguruan". Bestalde, euskara idaztea nere buruari egin nion apostua izan da, euskararen alde egin ahal nuen lanik ederrena".

Ugaldek elaberria jorrazeko asmoa dauka, ipuina baztertu gabe. Era berean, euskaraz idazten jarraituko du, baina erderaz ere, "gaztelera idatziz euskera defenda bait daiteke".